



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Ingurune Departamentua

Oinarri teknologikoko enpresask edo Enpresa berritzaileak sortzeko programa

BARNETEKIN

AMAIERA TXOSTENA OSATZEKO GIDA



APLIKATIBOAN OSATU:

- Proiektuaren **amaierako txostena** eta eranskinak.
- **Zereginak**: amaiera data, orduak, egoera eguneratu (amaituta dauden zeregin guztiek egoeran izan beharko dute).
- **Egitasmoaren kostuak**: Gauzatutako kostuak eta finantzaketa plana.
- Egitasmoko **kostuen frogagiriak** eta beraien **ordainagiriak** eskaneatu eta erantsi.
- Proiektuan zehar **sortutako dokumentazioa atxiki** behar da.

NOLA ERANTSI GAUZATUTAKO KOSTUEN FROGAGIRIAK

Kostuen **frogagiriak** eta beraien **ordainagiriak** eskaneatu eta erantsiko dira. **Justifikatzen den kontzeptuaren izenarekin pdf** dokumentu bat erantsiko da. Bertan **faktura/frogagiri** bakoitza bere **ordainagiriarekin** batera agertuko da, 8. **eranskinean jarritako hurrenkera** jarraituz.

15.000,00 € EUROTİK GORAKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Entitate onuradunak dirulaguntzetan sartzen diren gastu batzuk egin baditu, **15.000,00 euro edo hortik gorakoak** (BEZa kanpo), ondasun ekipoak erosten edota aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzu prestazioak erosten, **eskatutako hiru eskaintzen artean egin duen aukera egiaztatzeko dokumentazioa** aurkeztu behar du. Salbuespena: laguntza horren ezaugarri bereziak direla-eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez badago zerbitzu horiek emateko, edo kostua dirulaguntza eskatu aurretik egin ez bada.

PROIEKTUAREN PUBLIZITATEA

Jasotako **laguntzaren eta sustapenaren publizitate egokia** (irudi instituzionala, leloak.... sartuz dokumentuetan, euskarri elektronikoetan, komunikazio hedabideetan, etab.) biltzen eta ikusarazten duen dokumentazioa erantsi behar da, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak proiektuari emandakoa.

ZERGA ETA GIZARTE SEGURANTZAKO BETEBEHARRAK BETETZEA

Entitatearen **zerga betebeharrak eta gizarte segurantzako betebeharrak egiaztatzea** GFAko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa



Inguruneke Departamentuaren esku geratu zen, horretarako **baimena eman bazon** erakundeak eskabide agiria luzatzean. Beraz, egiaztatze lan hauek GFAko Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Inguruneke Departamentuak kudeatuko ditu zuzenean, hala behar izanez gero. **Enpresak Gizarte Segurantzaren ordezeko sistema izango balu**, berarekiko betebeharrak betetzen dituela azaltzen duen **egiaztagiria erantsi**.

Proiektuaren dokumentazioa

Proiektuan zehar sortutako dokumentazioa atxiki behar da. Proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak erantsiko da ere.